

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko apirilaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Nafarroa • 'Escena 2002' jaialdia Iruñean, Zizur Nagusian, Lizarran eta beste hainbat herritan izanen da • 3

Angel Arbe • «Ikasteko grina da artiston estrategia» • 7

Satrustegi antropologo euskaltzalea

Aurtengo Larreko saria Jose Maria Satrustegi antropologoari emanen dio Euskalerrria Irratiak, «Nafarroan euskaltzaletasuna bultzatzeko eginiko lanarengatik». Satrustegi euskaltzainak ez du uste «euskaldun baten euskaltzaletasuna aipatzeak ohore handirik egiten dionik, euskaltzale izatea gure senetik datorren zerbait baita». Bi orrialdeko elkarrizketa ttikian errepasoa eman diegu bere bizitzari eta iritziei. Besteak beste, euskal herriarenak egin duela uste du Satrustegik, euskaldun izan daitezkeen gero eta haur gutiago baitago.



• LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Baztan ●

'12 ordu eskuaraz' berritua

Diru kostua dela eta, aurtan ez dute antzezlan berririk emango

Baztango Dantzariak elkarteak zazpigarren urtez antolatzen duen 12 ordu eskuaraz jaialdiak, kostuak direla eta, aldaketa anitz izanen ditu aurtan. Jaialdi izatetik ekitaldi sorta izatera iragan da. Alta, helburuak euskara indartzea izaten jarraitzen du.



Aurtengo '12 ordu eskuaraz' jaialdian ez da antzezpenik izanen. Alta, 'Gottaneko andrea' antzezlan —irudian— Baigorri taularatuko dute, igandean, Nafarroaren Egunean. ● MENA ARGAZKIAK

ORAIN ZAZPI URTE EUSKARAREN indartzeko xedez 12 ordu eskuaraz besta abiatu zuten Baztango Dantzariak elkarteak. Urtez urte antzerki lan berezia antolatu dute, baina duen kostu ekonomiko handia dela eta, aurtan ez dute estreinatuko antzerki lan berririk. Irantzu Izeta antolatzailearen erranetan, «kostu ekonomikoa handia zuen, eta prestakizun aldetik lan ikaragarria. Hortaz, aurtan ber-

tze aire bat eman diogu». Hala, inoiz baino gauza gehiago izanen da aurtan.

Ekitaldiak joan den ortziralean hasi zituzten; Elizondoko Margolariak izeneko margo erakusketak ireki zuten. Alta, Baigorriko Basaizea elkartearekin hasitako elkarlanari ez diote hutsik eginen, eta joan den urteko Agottaneko andrea antzerki lana, Nafarroaren Egunean —igande honetan— agertuko dute. Irantzu

Izetak erran duenez, «antzerkian Baigorrikoek eta hemengoek parte hartuko dute». Larunbatean, Aurelio Sagasetaren oroimenez Baigorri egitekoa den Agur Extebe emankizunean parte hartuko dute, Nafarroako bertze zenbait talderekin.

Horrekin batean, aurtengo 12 ordu eskuaraz ekitaldian, Baztango garapenari eta geroari buruz solastatzeko astia hartuko dute, astearterako mahai in-

guria antolatu baitute. Mahai inguru horretan, Baztanen egungo egoerari buruz hausnartuko eta, bidenabar, etorkizuneko gakoak agertu nahi lituzkete. Hari beretik, Pello Salaburu EHUKo errektore izandako arizkundarra Ehun urte harrigarri bere hondarreko lanari buruz mintzatuko da, maiatzaren 3an.

Horrekin batean, aipatzekoa da maiatzaren 1ean eginen den 12 ordu lasterka. Orain arte Lekarozko kirolgunean egin izan dena aurtan Baztango herri guztietara hedatuko dute. Goizeko zortzietan Elizondoko plazatik abiatuko dira, eta Baztango herri guztietatik pasatuko dira. Irantzu Izeta antolatzailearen erranetan, «korrika gisako bat izanen da, baina Baztanen barna, herriz herri lekukoa pasatuz».

Dena dela, hitzordurik garrantzitsuen maiatzaren 5ean izanen da, Elizondoko eginen den dantzarien elkartzea. Baigorriko Arrola taldea, Zuberoako Urdirarbe, Bilboko Beti Jai eta Aragoiko Gallurrekoak ez ezik, urte guztian barna Baztango Dantzariak dantzan ikasten ibilitakoak ere bilduko dira. Goizetik Elizondoko karrika guztietan barna ibiliko dira, txaranga, gaitero eta soinuari lagunduta; ondorengo, Elizondoko plazan, denek elkarrekin muxikoak dantzatzeko dituzte.

→ Joseba Otondo

Barañain

Hariztiren jaialdi ikusgarria urteurreneko ospakizunetarako

BARAÑAINGO HARIZTI DANTZA taldeak jaialdi ederra eskainiko du bihar, bere XV. urteurreneko ospakizunak bukatzeko. Muthiko Alaiak fanfarrak 17:00etan hasiko da kaleak girotzen. Eta ordubete geroago, Retegi pilotalekuan, Hariztik hainbat urtetan dantzan ibili eta gero, eskuraturiko kalitatea erakutsiko du. Patxi izeneko gizon xelebre baten ibilerak kontatuko dituzte ikuskizunean. Euskal Herrian barna egin duen bidaiaren berri emanen dio Patxi lagun bati, eta, bidenabar, bisitaturiko leku bakoitzeko dantza aurkeztuko du.

Lagunak udal dantza taldearen errautsetatik sortu zen Harizti, 1987an. Lagunak-eko dantzarien eta Barañaingo Udaren artean desadostasunak sortu ziren, lehenengoek ikurrina erabiltzen zutelako beren saioetan. Lagunak desegin zen eta hogeitabat dantzari beste talde bat osatu zuten. Hasieran, taldearen etorkizuna ez zen erabat finkatua; baina zortzi urteren buruan, ikastetxeetan eginiko dantza ikastaroek ufa ederra eman zuten eta Harizti 80 bat lagun izatera iritsi zen. Egun 70 dantzari daude taldean, heldu eta txikien artean.

Urterrena ospatzeko, folkloreak inguruko hiru hirtzaldi antolatu zituzten martxoan. Eta atzo arte erakusketak izan da kultur etxean, 25 urte Barañainen dantzan izenburukoa. Erakusketan Lagunak eta Harizti taldeetako jantziak eta argazkiak bildu zituzten, besteak beste.

→ Daniel Urrutia

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Ez dugu zorte handirik izan. Jaio ginenetik kristau gara. Badira, ordea, batere arazorik ikusten ez dutenak. Nahi izanez gero, beti izaten omen da hori zuzentzea. Ez dakit ba. Erligio bakoitzak bere eredu estetikoak izaten du, eta guk denbora asko eman behar izan genuen erromantizismoan murgilduta. Ezin ukatu da bere zera hori ere izanen duela, jarraitzaile asko eta asko baititu eta haizea hasperenez bete etortzen da gurera oraindik.

Alabaina, jende gutxi izaten da Vatikanoko aldera begira, egun Hollywooden jartzen dugu begiraturik. Eskola handia da. Hollywooden egiten dira egun oinarritzko ikasketak. Ametsak egiteko fabrika omen. Formula: saiatu, saiatu eta saiatu. Ez da beti ongi ateratzen, askok eta askok bizi guztia ematen dute Seat-en amets eta amets.

Ez da hain harrigarria, azken batean Calvinoren

Aspertzea

jarraitzaileek idazten baitute oraindik ere gidoia. Eta Calvinoren ez zen budista. Hollywood bertatik bertara ezagutzen duten asko dira orain budistak. Zeru hobe ote beste horrek? Izanen du zer edo zer. Askok ere oinaze gutxiago, ziur aski ere.

Berea eman behar zaio. Polita da budismoa. Kristau batzuek ere alde onak ikusten dizkiote. Haatik, sakrifizioaren laudorioan ohitu denak bide luzea egin behar izaten du beste norabait iritsi nahi badu, eta, askotan, etsita, ezaguna hautatzen du. Lekutan daude Diogenes, Epikuro, Montaigne eta besteak.

Egokitu zaigunetik ikasi beharko genukeela esaten digute beste batzuek. Lezio handiak atera omen daitez-

ke. Konparazio batera, asko mintzatu dira aspertzeaz. Aski omen dugu txikitari aspertuta egon garen momentuez oroitzea. Eta izan genuen proportzioa. Eliza eta Eskola gogotik ahalegindu ziren.

Bertand Russellek, gainera, aspertzearen errebindikazioa egiten du. Aspertzen ikasi ez duenari ederki sufritzea tokatuko zaiola esan zuen. Bere ustez aspertzeak zaildu egiten gaitu, eta hobe ihes ez egitea, zorionetik aldentzeko bide zuzenena baita. Onartu beharra dago iritzi horiek ez direla very exciting.

Erromantikoari ez diote sobera lagunduko, gaitza da konbentzitzen, sua eta loreak behar baititu bihotzean, ezpata eskuan, argizko koroa bat buruaren inguruan, argizarizko malkoak masailetan. Ilusioa deitzen diote haiek beti goiti begiratu behar horri.

E.T. ere han goian dago. Berriz ere noiznahi jaitsiko da, beti topatuko baitu igotzen lagunduko dion norbait.

Nafarroa •

Dantza garaikidea nonahi

Etzi abiatu zen egitarau oparoak hainbat herritara eramango du dantza garaikidea

NAFARROAKO TEMPOMOBILE taldeak bere azken ikuskizuna taularatuko du, datorren igandean, Gaiarre antzokian. Becky Siegelen zuzendaritzapean, dantza eta zuzeneko musika uztartuz *Airbor* lana ikusten ahaliko da, iluntzeko 20:00etatik aitzina. Hauxe da Nafarroako Gobernuak aurtengo udaberrirako prestatu duen *Escena 2002* egitarauaren ikuskizunetako bat. Dantza emanaldiak, alta, etzi abiatu ziren, Orleanseko Zentro Koreografikoaren emanaldiarekin, eta maiatzaren 26a bitartean hainbat herritan izango da artearen alor hau, dantza garaikidea, alegia.

Zizur Nagusiko kultur etxean hiru ikuskizun izanen dira maiatzaren 10a eta 26a bitartean. Mudances, System Ballet eta Nats Nus taldeek bere azken emanaldiak taularatuko dituzte. Azken talde horrek, Nats Nus taldeak, ume koskorrei zuzendutako emankizuna prestatu du, dantzaren bidez haurren sormena pizteko xedearrekin prestatu duen emankizuna, hain zuzen ere.


Artinex ikuskizun askotarikoa

Escena 2002 egitarauaren ikuskizun erakargarrienak, berriz, Lizarran (maiatzak 10), Zango-

zan (maiatzak 11), Los Arcosen (maiatzak 12), Valtierran (maiatzak 18) eta Ablitasen (maiatzak 19) izanen dira. Bost herriotan *Artinex* izeneko dantza emanaldia taularatuko dute. Dantza garaikidearen esparruan ari diren bost dantza taldek beren ikuskizunak aurkeztuko dituzte, bata bertzearen ondoren, dantza saio berezi eta askotarikoa aurkeztuz. Hain zuzen ere, Carmen Rocheren Gazte Balleta, It Dansa taldea, M' atakaladanza, Flamenko eta Tientos konpainiak ariko dira *Artinex* ikuskizunean. Dantza klasikotik abiatuta eta flamenkoaren garrantzia ahaztu gabe, *Artinex*-en dantza esperimentala izanen da ardatz. Dantza garaikidearen bilakaera eta egungo joerak ikusteko aukera eskaintzen du ikuskizunak.

Artinex-en Nafarroako bi talde ariko dira. Javier Redradok zuzentzen duen M' atakaladanza eta Raquel Martinezek, Bengoa Vazquezek, Alba Bonalek eta Saray Extremerak osatzen duten Flamenko talde sortu berria. Laurak Madrilén ari dira ikasten, eta Jesus Zamarbideren *Panaderos* ikuskizuna prestatu berri dute, XVIII. mendeko herri dantzak abiapuntutzat hartuta.

M' atakaladanza konpainia ere sortu berria da, Javier Re-



'Escena 2002' jaialdiak Iruñera, Zizur Nagusira, Lizarrara, Zangozara, Los Arcosera, Valtierrara eta Ablitasera eramaten du dantzaren

Hamar dantza talde moderno ikusten ahal dira datozen egunotan Iruñean, Zizur Nagusian, Lizarran, Zangozan, Los Arcosen, Valtierran eta Ablitasen *Escena 2002* egitarauaren baitan. Nafarroako hainbat dantzari ariko dira bertan.

drado dantzari nafarraren zuzendaritzapean. Bere aurreneko lanaren izenburua *Atake0.1* da, eta lan honen atal bat eskainiko dute *Artinex* emankizunean. Aurrerago, emankizun osoa taularatuko dute, bakarka.

Dantzaren taupada berriak gustuko dituztenek, beraz, aukera polita dute datozen egunotan Nafarroan dantzaren unibertsoaz gozatzeko.

→ Kristina Berasain

Txantrea • Datorren astean Maiatzaren Leheneko jaiak

IRUÑEKO TXANTREAKO JAIK asteartean hasiko dira. Txantreako patroia San Jose da eta auzoko lehen harria martxoaren 19an paratu zuten. Alabaina, langile-entzako auzoa izatea eta historia kontuan izanik, Txantreako bestak Maiatzaren Lehenaren inguruan ospatzen dituzte beti. 1965ean, jaiak lehenbizikoz ospatu zituztenean, Elizak ez zion egun horri trabarik jarri, maiatzaren lehena San Jose Langilearen eguna baita.

Aurtengo Txantreako jaiak heldu den asteke asteartean hasiko dira eta igandea arte irau-

nen dute. Txupinazoa Txantrea kirol elkarteak jaurtiko du, aurtengo 50. urteurrena ospatzen ari baita. 20:00etan izanen da, Ezkaba plazan. 21:30ean, Biltoki euskaldunen elkarte berrian, bertso afaria egingen dute Maialen Lujanbio eta Juan Mari Irasurekin.

Asteazkena ekitaldiz josita egonen dira, hasi goizeko bederatzietako dianekin, gaueko zenezuzko eta kontzertuak arte. Osteguna egun makalagoa izanen da eta hiru ekitaldi besterik ez dira izanen. Baina asteburuan jaiak itzuliko da berriz.

Sanduzelai • Gaur bestak hasiko dira txupinazoarekin

IRUÑEKO SANDUZELAI AUZOAN asteburu osoko jai egitarau oparoari ekinen diote gaur. Larunbatean hasitako kultur aste mamitsuaren ondotik, gaur besten txupinazoa jaurtiko dute, 19:30ean, haur parkean, musika eta bertso artean. Bukaeran, larraín dantza handia egingen dute. 21:15ean, Adardunak ganaderiaren haurrentzako entzierroa aterako da auzo elkartetik. Eta 23:30ean, El Trono de Judas eta Segismundo Toxicomano rock taldeen kontzertua. Bitartean, Jarauta 69 txarangak auzoko karririk girotuko ditu.

Larunbatean, makina bat ekitaldi izanen dira, besteak beste, arrantza lehiaketa (09:00etan, ibaiaren ondoan); fandango eta sevilan dantza erakustaldia (12:30ean, ikastetxean) eta kalderete lehiaketa (12:30ean, osasun etxearen parean).

Igande goizean, Nafarroako hainbat herritako erraldoiek batera dantzatzeko dira, Sanduzelai plazan, 13:00etan. 16:00etan, berriz, txipi-txapa txapelketa egingen dute ibaiaren presan. Bestak akitzeko, larraín dantza egingen dute 21:30ean auzo elkartean.



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Nire abertzaletasuna

Azokara fruta eta barazkiak erostera joaten naizenean, «egunon», «mila esker» eta «agur» bezalako hitz euskaldun erraxak botatzen ditut, ikus dezaten sei tipula, lau azenario eta borraja bat erosi dituen hori euskaltzalea dela (euskalduna ere bai, akaso!!), abertzailea agian, hitz bitan esanda: vasco bat. Niri, ez dakit zuei, lau azenario, sei tipula eta borraja bat azokan erostea gauza positiboa iruditzen zait, eta ekintza hau euskarekin lotzen dudanez, bada, zera, mezu subliminal bat bidaltzen diet (jejeje!) vasco gauza positibo eta jatorrekin erlaziona dezaten (jejejeje!, zuhurra gero!).

Aldiz, inoiz txirinduarekin oinezko bat bultzatzen badut (espalotik abiadura handiegian esialom egiten ari naizelako-edo) «haberseapartao!» edo «paso-que-piso!» bezalakoak erabiltzen ditut, ikus dezaten ez naizela vasco, beste gauza bat naizela (jejeje!, zuhurra, ezta?).

Estrategia bikain hau deskubritu nuenetik, esparru (barka hitza!) eta ekintza guztietara eraman dut. Pornografia erostera joaten naizela? Bada «buenos dias!» batekin sartu, hiruzpalau aldizkari (likitsenak) erosi, zoofiliari buruzkoak ez izatea ozenki deitoratu eta El Mundo edo El Pais-eko titularrak gorai-patzen ditut («Aupa Redondoterros»), eta ondoren «adios» zakar batekin alde egiten dut (jejeejeje!). Margolari ospetsu baten erakusketa dagoela Zabalgunean? Bada, sarreraren euriarekin busti diren zapatak ongi garbitzen ditut, guarda-sola bere lekura eramaten dut (erortzen ari diren bi tanta horien-gatik sufrimenduzko eta barkatuko didazue aurpegia jarriaz), eta gero katalogoak saltzen dituen neskari eztizko «arratsalde on!» bat botatzen diot, ikustaldiari hasiera emanez.

Ikusten duzuenek, estrategia honek ez du inongo zailtasunik, haur batek ere aise erabil lezake!, eta Euskaltzaletasunari ekartzen dizkion onurak zenbakaitzak dira. Are gehiago! (eta horrexegatik ari naiz hemen hau guztia kontatzen): Hau da bidea! Lehendabizikoa egunetan agian pornografia erosi eta «gero arte!» bat aterako zaizue automatikoki. Lasail!, ohitura kontua da. Ikusiko duzue zein azkar «has-ta luego!» batekin lotuko duzuen ekintza hau. Saiatu! Etorkizuna gurea da! ●

Komuneko papera eta liburu bat


Gogoa. Barruak hustearen ondoko garbiketa lanak egiteko Monte Carloko komunean izaten ziren telefono gida zatiak gogoan iltzatuta dauzkat —metafora ezin aproposagoa, pape-rok iltze batetik eskegita egoten zirela aintzat hartuz—. Egun, goizean goiz komunzuloratzan dut komunzuloratu beharrekoa. Garai haietan, bazkalburako uzten nuen lana. Oso gustuko nuen mus partidari ekin aurretik Monte Carloko komunzulo turkiarren makurtuta —nago turkiarrak ergo-nomikoagoak direla arruntak baino— zama arintzea telefono gida zatiak irakurtzen nituen bitartean, ikustea, esaterako, zenbat Abaigar abizendun zeuden Abaigarren, edo eta zenbat Zuñiga Zuñigan, segun eta zer gida zati egokitzen zitzaidan.

Eserlekua. Telefono gidarekin kateatuta nengoen, **Agatha Christieren** libururik kateatzaileena irakurtzen ariko banintz bezala. Ez da harritzekoa, kontuan hartuz telefono gidan sona handiko hiltzaile bat baino gehiago ageri dela, batez ere kale ize-netan —dena dela, irakurlea lasai dadila, ez baitiot telefono gidaren irakurketa zapuztuko amaiera aurreratuz—. Halako batean, Samuelek, Monte Carloko jabeak, komuna gaurkotze aldera, iltzea kendu, torlojua jarri eta komuneko paperarentzako euskarria eskegi zuen paretan. Aldaketak izorratu ninduen. Batetik, tabernetan zaharbertitseek gehienetan nortasuna galtzeko besterik ez dutelako balio —garai batean Monte



Joseba Sarrionandia.

Carlo Zabalgunekeo tabernen paradigma zen, eta egun uharte bakarti bilakatu da—. Bestetik, aldagetak, oro har, ez zaizkidalako batere gustatzen, baina batez ere Etaio izorratu zuen, Samueli bigarren eskuko telefono gidak saltzen zizkion traperoa. Harrezkero, Etaio ez da Monte Carlora etortzen. Harrezkero, **Mikel Bujandak** iragarki historikoan erabili hitzak neure eginez, nik eserita egiten dut, etxeko komunzuloran, eta, telefono gidarekin hartu ohiturak bultzatuta, irakurtzeko liburua hartzeaz



Agatha Christie.

oroitzen naizenetan liburu bat eskuartean dudala, oroitzen ez naizenetan edo eta heste mugimenduak botepronto-koegiak direlarik bizarra egiteko apararen erabilpenerako oharak irakurtzen —Eroski taldearenaren euskarazko bertsioak ulertzen saiatzea ez da erronka makala izaten—.

Kate-lotura. Horixe da literatura-ri eskaintzen diodan tarte nagusia. Egunero, hamar bat minutu. Asteburuetan, ordu erdi, ordu bete; liburua ona bada, bi ordu, senitartekoen atsekaberako. Hartara, nire egungo litera-

turzaletasuna Monte Carloko komun gaurkotze ahaleginari zor diot. Samueli maiz ematen dizkiot eskerak hori dela kausa. Eta Samuelek, liburuaren egunean, urtero, hutsik egin gabe, komuneko paper rollo bat eta liburu bat oparitzen dit. Liburua beti euskarazkoa. Erdaldun peto-pettoa denez, liburutegian ikusten duen lehena ematen ohi dit. Aurten El Elefante rolloa oparitu dit —nik uste nuen jada ez zirela egiten. Agian Etaiorekin harremanetan hasi da berriro—, eta **Sarrionandiaren** *Lagun izoztua*. Izenburua ezagun egiten zitzaiola dio. Tertuliaren batean entzunda edo.



panpilonia zirkus

Efrain Giron

«Hi, horrela segiz gero, laster gorbata jantzita joan beharko diagu pintxoak jatera»; «Bai, motel, zenbait ostatutan haserretu ere egiten dira atun banderilla ttipi bat eskatuz gero, badakik, Donostiartu nahi gaitizte». Ez zaie arrazoi puskarik falta txikitero horiei, pintxo batzuen maila jasoa ikusita: ostruka haragia aran salda zipriztindurik; Mejanako alkatxofaz beteriko kaxoleta txingorretan erretako foie-rekin; Garraldako patatarekin egin-dako lasagna, trufa urrinez eta xerrez zipriztindutako semi-cuit goxoaz hornitua eta gisa horretako pintxoak ageri dira orain taberna aunitzetan, Hartza, Josetxo eta Europa jatetxeetako plateren pare.

Izan ere, gero eta toki gutxiagotan

ikusten dira koipe eta gantz loditan frijitutako pintxoak. Ez da olio urrinik. Urri-zelki tabernako zerbitzariak honela aipatzen zituen ozenki: «Gibelak, tripakiak, tripotxak, tripotak, birikak (aiskol eta birika, la cosa mas rica) eta kroketak». Ondoren, bezeroak zerbitzariari galdetzen zion ea pintxoak bero zeuden. Zerbitzariak, orduan, plateraren ipurdia ukitu eta, hala ere, ez baldin bazuen argi ikusten, kroketa eskuzolan hartu eta «Bai, bai, jateko puntuan dago». Ez baitzegoen mikrouhinik.

Pintxo guztiak, jakina, agerian zeuden, kristalezko babesik gabe, eta bakoitzak bazuen bere txotxa, goitik behera ederkiz iltzatua. Pintxo hitzaren aurretik, banderilla hitza erabiltzen zen: atun pusketak eta

OSKAR MONTERO



Pintxo donostiartua, Baserri tabernan.

oliba bat, pepinilo bat eta antxoa, arrautza egosia eta atuna, eta 1952ko banderilla lehiaketan irabazle gertatu zen banderilla, hots, arrautza egosia azpian, txorizo pamplonako xafla fina erdian, eta kaskoan, oliba bat. Erdi-erdian zut, txotxa, jakina. Misteriorik gabekoa, aise egitekoa. Joan den egunean, Jarautako Gure Leku elkartearen banderilla hori prestatu zuten, lehiaketaren 50. urtemu-

Enrike Diez de Ultzurrun

ga ospatzeko. Bi egun lehenagotik egin zegoen, gainera, hau da, arrautza muxintzen hasia zen, garai batean tabernetan gertatzen zena hobeki agertzeko. Alerik ere ez zen gelditu.

Dena dela, hiriko banderillarik gogoangarrienak Efrainen egiten zituen. Dotore, garbi eta zehatz. Gure plazan ederkiz moldatzen zen.

Horregatik, Laiana eskultoreak Efrainen artea islatu nahi izan zuen Bar Garcian egindako artelan batean. Zurezko paretan, bi irudi landu dituen: bat Efrain Giron, banderillak eskuan, eta, bestea, berri, zezena, lurrean eserita. Lepa beltzak Efraini errandakoa ere hantxe zegoen idatzita: «Ez nuke mundu hau utzi nahi Bar Garciako banderillak probatu gabe».

Angel Arbe

ARTISTA

«Ikasteko grina da artiston estrategia»

Angel Arbe artistaren azken proposamenak ikusi ahal dira Iruñeko Ziadadelako Mistoan Aretoko lehen solairuan. **Estrategia** izenburua jarri dio bere erakusketa berriari nafarrak. **Collage**-a eta fotomuntaiak baliatu ditu gizakion eta, finean, naturaren, estrategiei buruz mintzatzeko.

SEI URTE IGARO DIRA ARBEK Iruñean bere artelana azkenekoz erakutsi zuenetik. Oraingo erakusketa berezia da, kontu eta arreta handiz prestatu duelako. Xehetasun guztiak kontuan hartuta egindako pieza landuak dira bereak, eta, aldi berean, freskoak.

■ **Estrategia jarri diozu izenburu zure erakusketari; zein da zure estrategia artearen munduan?**

Nik uste dut artista guztion estrategia bera dela, eta estrategia hori da ikasteko grina izatea; artearen bidez ikasteko grina edukitzea. Artistok gure aurrekoek egin dutena gureganatzen dugu, iturri guztietatik edaten dugu, eta, aldi berean, gure ondorengoentzat uzten dugu egindako lana. Modu horretan, ezagutza berriz sortu egiten da.

■ **Berriz sortzearen inguruko gogoeta da, hain zuzen ere, zure artelaneko ardatzetako bat, ezta?**

Bai; azken finean, hori da bizitzaren estrategia. Nik uste dut

tan agertu nahi ditudan irudiak.

■ **Ehuna da nagusi irudi horietan; zergatik?**

Gizakia irudikatze modu bat da. Finean, ehuna, arropa, gure kanpoko azala da. Jantzten dugunak gauza asko erraten ditu gure izaerari buruz. Horregatik, gorputza bazter utzi eta arropa baliatu dut. Irudi soilak hautatu ditut hasteko, eta, ondoren, binaka, hirunaka edo taldeka bildu ditut.

■ **Sortu edo berriz sortzeko ideia, berriz ere.**

Hala da. Taldeen bidez harremanak irudikatzen ditut, maskulinoaren eta femeninoaren arteko nahasketa, hori baita ugalketaren ardatza.


■ **Gizakia ez ezik, natura ere ageri da zure obran.**

Noski, gu ere animaliak baikara, eta gure estrategia bera baita nagusi naturan ere, ugalketa, alegia. Hegazti edo landareen formak ageri dira, batetik, eta, bestetik, zura bera, hori baita erabili dudan material nagusietako bat. Zura oso elementu hurbilekoa da guretzat, eta askotan ez du beste ezeen beharrik. Manipulatu gabeko zura puska ere zintzilikatu ditut, paisaia ederrak irudikatzen dituztelako. Gainera, denboraren joana igar daiteke zura puska horietan, eta horrek pieza zoragarri bilakatzen ditu.

■ **Zura da nagusi erakustokiko alde batean; bestean, berriz, bestelako giroa lortu duzu egunkarietako plantxen eta fotolitoen bidez. Zein da nahasketa horren funtsa?**

Denborarekin zerikusi handia du. Zurak espazio tarte zabalak islatzen ditu; beste aldeko materialek, berriz, egunerokoa. Egun bateko istorioak, plantxa batean harrapatuta. Baina ez dira bi elementu horiek erabili ditudan bakarrak; papera ere nire erakusketako protagonista nagusia da. Omenaldia egin nahi izan diot, papera baita oinarria.

■ **Duela sei urte egin zenuen azken erakusketa Iruñean; oraingoa Ziadadelan paratu duzu, lantoki duzun espazioan, alegia. Erakusketa berezia da, nolabait?**



● JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS

Oso berezia. Kontu handiz egindako erakusketa da hau; xehetasunez betetako erakustaldia da, maitasun handiz prestatutako piezak bildu ditut hemen. Gainera, une honetan egiten ari naizen lanaren erakusleho da erakusketa hau; hau da, labetik atera berri diren piezak dira, nolabait errateko. Asko landutako lanak dira, eta, aldi berean, oso freskoak. Horregatik, oso erakusketa berezia da niretzat.

→ Edurne Elizondo

soslaia

49 urte eginen ditu igandean Angel Arbe artista iruindarrak. Artearen munduan gazte murgildu zen, eta 17 urterekin egin zuen aurreneko erakusketa. Pinturaren alorrean hasi baina berehala musikarenean murgildu zen Arbe, eta hainbat taldetako kide izan zen 70eko hamarkadan.

Musika alde batera utzi ondoren, 35 urterekin hasi zen Arte Ederrak ikasten Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean. Etapa horrek «konfiantza» eman ziola aitortzen du. 92an erakusketa garrantzitsua egin zuen Burlatan, eta Iruñeko Arte Plastikoen Biurtekoan ere irabazle izan da.

Artista izatez gain, artearen mundua du lanbide. Iruñeko Ziadadelan egiten du lan, beste artisten erakusketak atontzen. «Era askotako ehunka artistaren lanak igaro dira nire eskuetatik». Besteengandik ikasteko aukera paregabea Arberentzat.

Iruñeko komunikabide batek ordezkapen bat egiteko administrari bat behar du,

Eskatzen da:

- Euskara ahoz eta idatziz jarduteko maila.
- Informatika arloa menperatzea: Windows 98, Word, Acces eta Excel.
- Kontabilitatea.
- Eskarmentua antzeko lanetan.

Eskeintzen da:

- Lan kontratu laborala gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa.

Interesatuak Curriculum zehatza bidali argazki berri batekin Maiatzaren 6a baino lehen, helbide honetara:

IRUÑEKO KOMUNIKABIDEAK, S.A.
Iratxe Monastegia, 45-ek eskailera, 13.ek
31011 IRUÑEA

«Nire tresna nagusia aitzurra da; eskuz egindako lana da nirea, neurri handi batean, baina, aldi berean, eskura ditudan teknologia guztiak erabiltzen ditut»

gure bizitza honetan estrategia nagusi bat dagoela, eta estrategia hori da berriz sortzea. Horregatik, bizitzan badira funtsezko hiru elementu: jana, arnasa hartzea eta sexua. Hiru elementu horien bidez berriz sortu egiten gara, etengabe, bestela, gureak egin baitu. Ezagutza ere, sortu eta berriz sortzen dugu. Aurrekoen memoria jasotzen dugu ondorengoei uzteko.

■ **Elementu horiek —jana, sexua, arnasa hartzea— ageri dira zure obran mami; begiratuta, jostun batek kontu handiz egindako pieza sotilak dirudite zure obrek.**

Nire tresna nagusia, hain zuzen ere, aitzurra da. Eskuz egindako lana da nirea, neurri handi batean, baina, aldi berean, eskura ditudan teknologia guztiak erabiltzen ditut. Baina argi dago emaitzan nabari dela kontu handiz egindako piezak direla, hau da, tentu handiz aukeratzen ditudala nire pieze-

Egunkaria

• ostirala • 2002ko apirilaren 26a

ZALDIEROA.komikizopa



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Agenda

08:15. Ohetik jaiki eta erabaki garrantzitsu bat hartu dut. Gaur egingen dudana guzti-guztia agendan apuntatuko dut.

08:20. Komunean, ispiuaren aurrean, nire piura petralaz jabetzen saiatu naiz. Lan zaila; begiak ezin irekiz bainabil. Azukre-kozkor taimainako bekarrak ditut. Urgentziatzko garbiketa baten ondoren eta gaurko proiektuarekin aurrera egin nahirik, sukaldera noa.

08:30. Lehenik eta behin irratia piztu dut. Luis de Olmo marmarka ari da. Seinale on. Guztiz esnatuta nago. Kafeteran gelditzen den kafe eskasa probestu dut, kafesne albino bat prestatzeko.

08:40. Orain bai, komunean asmatzeko gauza naiz eta pixa egitera noa. Hortzak garbitu eta bizarra egin.

08:52. Logelara jantzera. Presaka nabil. Kaltzontzilo, galtzerdi eta kamiseta garbiak hartu eta atzoko praka bakeroak eramanen ditut. Eguraldi polita gaurkoa. Hala eta guztiz, jertse bat hartuko dut, hozten badu ere.

08:57. Beti bezala azken unean, giltzak eta diruzorroa inondik ez dira agertzen. Badakit gauze bere kasa ibiltzen direla eta gutxien espero dudana tokitan ezkutatzen direla.

08:59. Aurkitu zaituztet! Arrapaladan bilabesaren ibilbidea geldiaraztera. Ez dut lortu. 09:10eko hartu beharko. (...)

09:22. Iruñean naiz. Kaldereria kalean *Camel Trophy* egin dut. Inkontzienteki Iholanda Bartzinaren amarekin akordatu naiz.

09:34. II. Zabalguneko egoitza ofizial batean naiz. Seigarren pisura joan behar dut, inprimaki baten bila. Igogailua hartzea erabaki dut. NO FUNCIONA. Zer da funtzionatzen ez duena? Igogailua? Nafarroako Gobernua? Badakit, elebitasunaz ariko da. Bestela *Ez dabil* bat ere irakur liteke; *kurtsibaz* sikiera. Azkenean amasestuka eskaileretan gora.

11:45. Ez didate inprimakia eman nahi. Gora burokrazia.

12:00. Benetako kafe bat hartzen ari naiz, Kosovoko azoka dirudien Gazteluko plazako terraza horietako batean. Agenda hartu eta azkeneko burutapena idatzi: Ondorio garrantzitsua. Agendan gauza hauek guztiak apuntatzea badaezpada hartutako jertsea bezain baliagarria da.

gure aukerak

MUSIKA

- **Arbizu:** Diletanti ganbera musika taldea gaur, 12:30ean, elizan.
- **Iruñea:** Bol taldea gaur, Reverendos aretoan, 21:30ean.
- **Aitzoain:** Kuraia eta Lif taldeak gaur, 22:00etan, Artsaian.
- **Zangoza:** Los Diablos del Ritmo Revival taldea gaur, 23:00etan, Dos Caballos tabernan.
- **Gares:** Status Quo taldea bihar, 21:30ean, Gares aretoan.
- **Burlata:** Bathoo eta Anorexia taldeak asteartean, 20:00etatik aurrera, Black Rose tabernan.

BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Biltoki elkartearen bertso afaria egingen dute asteartean, Maialen Lujanbio eta Jesus Mari Irazurekin. Txartelak igandea baino lehen hartu, Ezkaba eta Harpea tabernetan edo 948-121617 telefonon.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikirren zinemaldia- ren baitan, *Eki alde* ekialde filma emanen dute gaur, 20:30ean, Golem zinematokietan.

ANTZERKIA

- **Bera:** Lamixine BAT taldeak hitzaren garrantziaren inguruko ikuskizuna eskainiko du gaur, 20:00etan, kultur etxean.
- **Mutiloagoiti:** Gorakada taldeak *Aitonaren kontuak* antzezlanataularatuko du igandean, 18:30ean, kultur etxean.

HITZALDIAK

- **Noain:** Alfontso Martinez Lizarduikoa ikertzaileak *Euskal zibilizazioa Nafarroako erreinuaren oinarria* izenburuko hitzaldia emanen du gaur, 19:30ean, kultur etxean.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Asteazkenean Txantrean egingen duten Aire Zabaleko II. Pintura Lehiaketan parte hartzeko, gaur da auzotegian izena emateko azken eguna.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Zabalik da Urtxintxak antolatzen duen aisialdiko hezitzaileen ikastaro trinkoan izena emateko epea. Abuztuaren 26tik irailaren 30era egingen dute. Izena emateko, deitu 948-237574 telefonora. Lehen 20 lagunek matrikularen %50eko diru laguntza izanen dute.

ERAKUSKETAK

- **Bera:** EHGAM taldearen 25. urteurreneko erakusketa gaur eta bihar izanen da kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.
- **Iruñea:** Mugarik Gabeko Medikuen *Harrapatuak* erakusketa interaktibo ibiltaria Takonera parkean izanen da asteburuan.
- **Burlata:** Egipto faraonikoaren kultura eta artearen gaineko erakusketa Joakin Azkarate kaleko aretoan izanen da igandea arte, gaur eta bihar 19:00etatik 21:00etara eta igandean 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Joseja Casadok margoturiko mendi eta zelaia Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42) izanen dituzte hila akitu arte.
- **Iruñea:** Joseba Zabalzak Guatemala hiriko zabortegian egin zituen argazkiak Zabaldiko teterian izanen dira maiatzaren 6a arte.
- **Iruñea:** Gregorio Patonen margolanak Molmar galerian izanen dira (Curia, 18) maiatzaren 8a arte.
- **Iruñea:** Jose Mari Pastor Artzai margolariaren olio eta akuarela lanak Carlos Zirizaren galerian (Berria, 123) egonen dira

maiatzaren 18a arte (asteartetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara).


BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Gaur mendi eta eski

materialen merkatua egingen dute Nafarroa Kirol Elkartearen (Jarauta, 78), 19:00etatik 21:00etara.

- **Baigorri:** Basaizea elkarteak antolatuta, Nafarroaren Eguna ospatuko dute igandean.

Asteko erakusketa



Jose Urdin

Non: Uharteko kultur etxean.

Noiz arte: Apirilaren 30a arte.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara.